



**2022KO ABENDUAREN 15EKO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko abenduaren hamabostean, iluntzeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- 2023KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2023 urterako aurrekontua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpererako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontua azaltzen hasitako momentuan, Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratu da Osoko Bilkurara.

Aurrekontu espedientean jasotako dokumentuen artean aurrekontua burutzeko udal araua dago baita ere.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordean informatuak izan dira.

Alkateak aurrekontuaren azalpen orokorra egin du.

Ogasun Batzordearen buru den Eneritz Miranda Muxika zinegotziak inbertsioen xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) zenbait galdera egin ditu aurrekontuen inguruan eta ondoren esan du aurreko urteetako aurrekontuetan EH Bilduri onartu zitzaizkion proposamenetatik ez dela ezer bete. Horregatik, parte hartze faltagatik, ezentzunarena egi-ten dietelako eta aurrekontuak exekutatzeko zorroztasun faltagatik aurten ez dute proposamenik egin eta ezezko botoa emango dute.

Alkateak bere harridura adierazi du Bilduren proposamen faltagatik. Aurrez lanketa bat egin behar dela horretarako eta etxeko lanak ez dituztela egin esan die. Hiru bilkura egin dituela Ogasun Batzordeak eta izan dutela astia proposamenak aurkezteko.



Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ) eta aurkako sei botoz (EH Bildu) honako akordio hauek hartu ditu:

Lehen.- 2023 urterako udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2023KO UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.579.400,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	200.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.987.150,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.087.826,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	8.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIOEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA-KO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA			8.864.376,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.780.670,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.183.272,05 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	1.600,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	750.705,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	991.128,95 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	155.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
GASTUAK GUZTIRA			8.864.376,00 €

2023KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	17.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			17.000,00 €



LAZKAO
SARRERAK:
UDALA



GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	12.500,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	4.500,00 €
GASTUAK GUZTIRA			17.000,00 €

2023KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.780.670,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	200.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.987.150,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.104.826,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	8.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA			8.881.376,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.780.670,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.195.772,05 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	6.100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	750.705,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	991.128,95 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	155.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
GASTUAK GUZTIRA			8.881.376,00 €

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost egun baliodunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.



Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2023ko Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, aho batez, onartu egin ditu.

III.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA KONTRATUAREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Osoko Bilkurak 2022-10-27an egindako bilkuran, Udal eraikinen garbiketa zerbitzuen kontratua aldatzeko espedienta hasteko baimena ematea erabaki zuen; zerbitzua Gureak Garbitasuna S.L.U.ri esleitu zitzaion 2020ko uztailaren 23an, kontratuak iraungo duen urte bakoitzerako 232.374 eurotan (gehi BEZa).

Proposatu den aldaketa, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian jasota ez dagoena, kontratuaren lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen geroa sortu diren inguruabarrek eragindakoa izan da, hain zuzen ere, Udal teknikariek burutu duen txostenaren bidez egindako eskarian jasotakoek eragindakoa.

2022ko azaroaren 22an, ebazpena eman zen aldatutako egitasmoa onesteko eta kontratistari entzunaldia egiteko epea eman zitzaion.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorriz, zerbitzu-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203. eta 205. artikuluetan ezarritakoak.

Kreditu aldaketa egitea beharrezkoa izan da, kontu-hartzaitzak adierazi zuenaren arabera ez bait zegoen nahikoa kreditu zerbitzu hori emateko udal aurrekontuko gastuen dagokion kontusailean. Beraz kreditu aldaketa bat egitea eskatzen zuen honek. Eta kontratu aldaketa honetarako beharrezkoa zen saldoa egon zedin, kontzeptu hori barne duen kreditu aldaketa hori 2022ko urriaren 27an onartu zuen Osoko Bilkurak.

Aldaketaren zenbateko likidoa 35.743,80 euro dira (gehi BEZa): ez da kontratuaren hasierako prezioaren %20 baino gehiago, BEZik gabe. Beraz, kontratistarentzat bete beharrekoa da.

Proposatutako aldaketaren ondorioz, kontratuaren prezioa horrela aldatzen da: %15,38. SPKLren laugarren xedapen gehigarriaren 3. azpiatalean xedatutakoaren arabera, kontratu honetan ez da bidezkoa behin betiko bermea eskatzea, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezietan eta laneratzeko enpresei erreserbatutako kontratua delako, eta ez dagoelako horren beharra justifikatzen duen aparteko arrazoirik.

Aldaketarako espedientea onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Osoko Bilkurak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarrai-





LAZKAOKO
UDALA

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du beraiek nahiago dutela Udal langilearen ordezkia Udalak kontratatzea, Gureak Garbitasuna S.L.U. enpresaren bitartez kontratatzea baino. Horregatik, ez datoz bat honekin eta abstentziora joko dutela esan du.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentziaz (EH Bildu), akordio hauek hartu ditu:

LEHENENGOA. Honako kontratu hau aldatzeko espedientea onestea: Udal eraikinen garbiketa zerbitzuen kontratua, Gureak Garbitasuna S.L.U. enpresari adjudikatutakoa, hasierako prezioa 232.374 euro (gehi BEZa) direlarik. Udal teknikariek burututako txostena jarraituta egingo da; San Prudentzio eraikinean garbiketan emandako asteko ordu kopurua 50etik 85era igotzean eta San Benito eraikinean garbiketan emandako asteko ordu kopurua 50etik 60ra igotzean datza, eta kontratuaren aldaketa 35.743,80 euro (gehi BEZa) dira urteko.

BIGARRENA. Aldaketa honen ondorioz, zerbitzua emateko epea ez da handituko, beraz kontratuaren epeak ez du aldaketarik jasango.

HIRUGARRENA. 35.743,80 euro gehi BEZko gastua xedatzea, indarreko udal-aurrekontuaren dagokien partidetan zorduntzeko.

LAUGARRENA. Ebazpen hau kontratistari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun baliodun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, kontratuaren aldaketa gauzatzeko eta bestetik, zein errekurtsio jar dezakeen.

BOSGARRENA. Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA